

Azken kokreta ▶ Kote

ARCO ARTISTAZ BETERIK EGONGO DA:



Handik ▶



Koldo Izagirre

Arramendi

Arramendi bota dutela!

Ez dut esanen bihotzean zarrapo, baina bai urratutxoa hemen nonbait, barruan. Baina utikan nostalgia, joanak joan egiten dugu aitzina. Zeharo erratu ez banaiz behintzat aspaldi itxi zuten Arramendi, bota ez balute ere ez nintzen gehiago tokan alferrik saiatuko etxaurre hartan, ez nituen berriz dastatu ahal izanen bertako mokadu goxoak, joandako urak dira.

"Pasa, bai, jarri hor!"

Mihian zakarrik gabe, ahots lakar-eztian gomitatzen gintuen etxekoandreak barruko gordegia. Horixe baitzen Arramendi, gazteok lasai hitz egin ahal izateko aterpe duin eta merkea, ez baserri bat, ibaian gora zihuan ontzi ausarta baizik. Kaxuela lurrintsu bana aurrean eta markarik ez eta beharrik ere ez zeukan lau txikikoa erdian, greba inpossiblez eta neska inpossiblegoez ariko ginen, borrokaz, literaturaz, marxismoaz. Nolako elkartasuna beti

sukalde hartan mundua errotik aldatu nahi genuenekiko, nolako pazientzia gure afalondo luzeak diskrezioz eramateko! Eta despedidakoan, etxekoan agurrak halako...

"Etorri nahi duzuenean, arrazoi daukazue, gu ere..."

Haiek ere maizter, gazteok bezala.

Ordaindu behar munduan bizitzeko!

Bota dute baserria, baina Arramendi ezin izan dute bota.

Ontzi bat da, ibaian gora dator, hortxe doa, ikusi, ez dute joandako urek eraman, ikusi gazteok —ez halako jaki jatorren aurrean baina— neskez, mutil ez, grebez, borrokaz, idatzitako azken ipuinaz eta irakurritako azken nobelaz ahapetik hitz egiten, munduan aldatu nahirik, datozen uren kontra igeri. Erretereria zaharrean ez bada, Orereta berrian.

Arramendin.